

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2975

580/2023 EBAZPENA, ekainaren 5koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorreko 2023ko martxoko zikloaren destinoen eskaintza, C3 Teknikari Espezialista Profesionalen lanbide-taldeko Sukaldaria kategoriarako / lanpostu funtzionalerako.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1313/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorra egiteko deialdia egin zen, C3 Teknikari Espezialista Profesionalen lanbide-taldeko kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatua xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza, C3 Teknikari Espezialista Profesionalen lanbide-taldeko Sukaldaria kategoriarako / lanpostu funtzionalerako, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan, data hauek hartu dira erreferentziatzat: 2023ko martxoaren 1a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2023ko uztailaren 13a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1313/2021 Ebazpenean araututakoari jarraiki, 2023ko uztailaren 13ra arte, 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2023ko martxoko ziklo honetan, 2023ko uztailaren 13ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldez aurretik adierazitakoaren arabera.

2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoren bat badute 2023ko uztailaren 13a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko ekainaren 22a, osteguna

I. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: SUKALDARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: SUKALDARIA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Data igarota
2	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / Goizez-Goizez 07:00-14:00-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / Zamudioko Ospitalea-Zamudio / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Debabarreneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Eibarko Ospitalea-Eibar / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Data igarota
2	Debabarreneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Eibarko Ospitalea-Eibar / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Igaro gabeko data (2023-12-03)
1	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Guruzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Igaro gabeko data (2023-12-03)
1	Santa Marina Ospitalea	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Santa Marina Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Data igarota
2	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Goizez lerrakorra, finkoa-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe